

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### OGASUN ZUZENDARITZA

#### Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren administrazio egintzen jakinarazpena

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezko izan da. Hortaz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aipatutako artikulua eskatzen dituen jakinarazteko ahaleginak egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergadunei edo beren ordezkariari dei egiten zaie agertu daitezen eta zerrendan adierazten diren prozeduren ondoriozko administrazio egintzen jakinarazpena jaso dezaten.

Interesdunek edo beren ordezkariak gehienez 15 egun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Bulego Kudeatzailean (Samaniego kalea, 14. Gasteiz) agertzeko, zerga hori kudeatzen duen bulegoak izapidetutako prozeduren berri eman diezaien. Interesdunak edo beren ordezkariak astelehenetik ostiralera 8:15etik 14:30era bertaratu ahal izango dira.

Adierazitako epea igaro eta agerraldia egin ez bada, jakinarazpena lege ondorio guztietarako egindakotzat emango da agerraldirako adierazitako epea bukatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 15a

Zeharkako Zergen Zerbitzuaren burua  
IGNACIO NANCLARES REIZABAL

IFZ	PROZEDURA
X5805529F	Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren errekerimendua
X7829290K	Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren errekerimendua